Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Gerra Zibilean eta Diktaduran jazarpena edo indarkeria jasan zutenen aldeko Oroimen Historikoaren Kontseilu Sektoriala
Consejo sectorial de Memoria Histórica en favor de quienes padecieron la persecución o violencia durante la guerra civil y la dictadura

# Oroimen Historikoaren Kontseilu Sektoriala
## Consejo Sectorial de Memoria Histórica

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2016ko urtarrilaren 12a**/ 12 de enero de 2016<br>**Udaleko Urgull bilera gela /**Sala de reuniones Urgull<br>**18:00etan** / A las 18:00 horas |
| **Amaiera ordua**<br>Hora de finalización | **19:30ean /** A las 19:30 horas |

**GAI-ZERRRENDA:**
ORDEN DEL DÍA:

| | |
|---|---|
| 1.- Aurreko saioko akta onartzea. | 1.- Aprobar el acta de la sesión anterior. |
| 2.- Kontseiluko kide berrien aurkezpena: | 2.- Presentación nuevos miembros del Consejo: |
| - Udal talde politikoen ordezkariak. | - Representantes de los grupos políticos municipales. |
| - Altunaberri Kultur Elkartea. | - Altunaberri Asociación Cultural. |
| 3.- Lehendakariaren proposamena ospe bereziko kolektiboak eta pertsonak Kontseiluan sartzeko. | 3.- Propuesta del Presidente en relación a la integración de colectivos y personas de especial relevancia. |
| 4.- Kontseiluaren Ohiko Bilkuren egutegi proposamena 2016 urterako eta metodologia. | 4.- Propuesta de calendario de Sesiones Ordinarias del Consejo para 2016 y metodología. |
| 5.- Eskariak eta galderak. | 5.- Ruegos y preguntas. |

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6279n IV 2004-03

## BILERAN PARTE HARTU DUTE:
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | **Alkatea**<br>Alcalde |
| **GIZA ESKUBIDEETAKO ZINEGOTZI ESKUORDEDUNA**<br>CONCEJAL DELEGADO DE DERECHOS HUMANOS | |
| **TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK**<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | ❑ **EAJ-PNV**<br>❑ **PSE-EE**<br>❑ **PP**<br>❑ **IRABAZI**<br>❑ **EH BILDU** |
| **KONTSEILUKO BOKALAK**<br>VOCALES DEL CONSEJO | ❑ ARANZADI Zientzia Elkartea<br>❑ Altunaberri Kultur elkartea<br>❑ EDE Fundazioa (Bakeola)<br>❑ Euskal Memoria Fundazioa<br>❑ Genozidioaren biktimen elkartea<br>❑ Goldatu elkartea<br>❑ LAB udal sail sindikala<br>❑ Lantxabe Asoc. De vecinos de Aiete<br>❑ Miguel Aranburu Historialarien elkartea<br>❑ 1.Herritar norbanakoa / Representante ciudadano nº 1<br>❑ 2.Herritar norbanakoa / Representante ciudadano nº 2<br>❑ 1.Ospe bereziko pertsona/ Persona de especial relevancia nº1<br>❑ 3.Ospe bereziko pertsona/ Persona de especial relevancia nº3 |
| **ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA | **Hamaika Bide elkartea** |

| | |
|---|---|
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL | **Kontseiluaren Idazkaritza. Giza Eskubideen teknikaria**<br>Secretaría del Consejo. Técnica de Derechos Humanos |
| | **Giza Eskubideen Ataleko burua**<br>Jefa del negociado de Derechos Humanos |
| | **Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren zerbitzu burua**<br>Jefe del Servicio de Educación y Promoción Social |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS PARTICIPACIÓN | **20 OHKSeko pertsona kideak jarraian adierazten direnez gain: Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren zerbitzuburua, Giza Eskubideen atalburua eta Kontseiluko idazkaria.**<br>20 personas integrantes del CSMH, además del Jefe del Servicio de Educación y Promoción Social, Jefa de sección de Derechos Humanos y la secretaría del Consejo.<br><br>**Emakumezkoak** / Mujeres = **6**<br>**Gizonezkoak /** Hombres = **17** |

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6279n IV 2004-03

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6279n IV 2004-03

## Saioaren bilakaera:

## Desarrollo de la sesión:

BATZORDEBURUAK bilkura hasitzat jo ondoren, honako GAI ZERRENDA lantzeari ekin diote:

**1.- Aurreko saioko akta onartzea.**

Zuzenketa bat egin (bileran izan zen talde baten izena ez baitzen ageri euskarazko aldean) eta onartzea erabaki dute aurreko bileraren akta. Era berean, zuzenketa horiek egindakoan akta hori kontseiluko-kideei ahalik eta azkarren bidaltzea ere erabaki dute.

**2.- Kontseilukide berrien aurkezpena: Udal talde politikoen ordezkariak eta Altunaberri Kultur elkartea**

Legealdi berria hastea dela eta, udaleko talde politikoek ere berriz izendatu behar izan dituzte beren ordezkariak. Era berean, Altunaberri Kultur Elkartea ere zuzenean sartu da Kontseiluan, dituen gizarte helburu, xede eta jarduerak memoria historikoarekin zuzenean lotuta dituen herri entitate bat delako. Aurkezpen txandan, elkartearen lana eta ibilbidea azaldu ditu Altunaberriren ordezkariak.

**3.- Lehendakariaren proposamena ospe bereziko kolektiboak eta pertsonak Kontseiluan sartzeko.**

Idazkariak azaldu du garrantzia bereziko elkarte edo pertsonen arteko, 2 elkarte (Miguel Aranburu Historialarien Elkartea eta Valentin Foronda Unibertsitate Institutua) eta 3 pertsona aurkeztu direla. Batzorde Iraunkorrak hala eskatu zuenez, Kontseiluko gainerako kideei ere bidali dizkiete horien ibilbideen laburpenak.

Denek hala denek dute teknikarien aldeko txostena, Kontseiluan sartzeko bete behar dituzten baldintzak betetzen dituzte eta.

Irabaziren ordezkariak esan du haren taldeak ez dituela txosten horiek jaso eta, beraz, ez duela erabakitzeko adina informazio, eta, hori dela eta, ez

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

**1.- Aprobar el acta de la sesión anterior.**

Da comienzo la sesión y es aprobada el acta de la sesión anterior previo acuerdo de realizar una corrección ya que el nombre de una de las organizaciones asistentes no se encuentra recogida en la parte de euskera. Asimismo, se acuerda remitir en breve el acta con dichas correcciones a las personas miembros del Consejo.

**2.- Presentación nuevos miembros del Consejo: Representantes de los grupos políticos municipales y Altunaberri Asociación Cultural.**

Debido al cambio de legislatura, los grupos políticos municipales han debido nombrar de nuevo a sus representantes. Asimismo, la Asociación Cultural Altunaberri entra de forma directa, ya que es una entidad ciudadana cuyo objeto social, finalidad y actividades están relacionadas directamente con la Memoria Histórica. Se realiza una ronda de presentación, y el representante de Altunaberri explica el trabajo y trayectoria de esta asociación.

**3.- Propuesta del Presidente en relación a la integración de colectivos y personas de especial relevancia.**

La secretaria explica que, dentro de la modalidad de colectivos o personas de especial relevancia, se han presentado 2 colectivos (la Asociación de Historiadores Miguel Aranburu y el Instituto Universitario de Historia Valentín Foronda) y 3 personas individuales. A petición de la Comisión Permanente, se han enviado los resúmenes de sus trayectorias al resto de miembros del Consejo.

Todos ellos tienen informe técnico favorable, ya que cumplen los requisitos para integrarse en el Consejo.

La representante de Irabazi dice que, dado que su grupo político no ha recibido dichos informes, no tiene suficiente información para decidir, por lo que

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6279n IV 2004-03

dutela kide horiek Kontseiluan sartzearen aldeko botorik emango.

Idazkariak jakinarazi du curriculumak zituztelako ez zirela bidali txosten tekniko horiek, Datuak babesteko legeak ez duelako horiek bidaltzen uzten. Horregatik bidali zirela ibilbideen laburpenak.

Genozidioaren biktimen elkartearen eta EH Bilduren ordezkariek duda egin dute norbanako gisa aurkeztutako pertsona batzuek memoria historikoarekin harremanik duten benetan, pertsona horiek beste arlo batzuetan berezituta daudela iruditzen zaie eta.

Hala, batzuek zalantzak dituztela adierazi dutenez, banan-banan bozkatzea erabaki dute. Emaitza hauek izan dira:

- Miguel Aranburu Historialarien Elkartea: 13 boto alde, batere ez kontra eta 4 abstentzio.

- Valentin Foronda Gizarte Historiako Institutua: 10 boto alde, batere ez kontra eta 7 abstentzio.

- 1, Ospe bereziko pertsona: 10 boto alde, batere ez kontra eta 7 abstentzio.

- 2, Ospe bereziko pertsona: 10 boto alde, batere ez kontra eta 7 abstentzio.

- 3, Ospe bereziko pertsona: 13 boto alde, batere ez kontra eta 4 abstentzio.

Beraz, hemendik aurrea 5 izangaiak Kontseiluko kide bihurtu dira. Hiru kide berrirekin beste aurkezpen txanda bat egin dute.

**4.- Kontseiluaren Ohiko Bilkuren egutegi proposamena 2016 urterako eta metodologia.**

Bilera horiek martxoan, ekainean eta azaroan egitea proposatu du lehendakariak, eta 15 egun lehenago Batzorde Iraunkorrak.

Bilera bat aurrekontuen inguruko proposamenak egiteko adina denborarekin egitea komeni dela esan du EH Bilduren ordezkariak, eta, beraz, azaroa berandutxo izan daitekeela.

no van a votar a favor de la integración de estos nuevos miembros al Consejo.

La secretaria informa de que no se han enviado los informes técnicos debido a que incluían los curriculum, que no se pueden mandar por la Ley de protección de datos. Por ello, se enviaron los resúmenes de las trayectorias.

Las personas representantes de la asociación Genozidioaren biktimak y de EH Bildu ponen en duda la relación real de algunas de las personas individuales con la memoria histórica, ya que consideran que sus áreas de especialización son otras.

Al haberse expresado algunas dudas, se decide votar uno a uno, obteniéndose los siguientes resultados.

- Asociación de historiadores Miguel Aranburu: 13 votos a favor, ninguno en contra, 4 abstenciones.

- Instituto Universitario de Historia Valentín Foronda: a favor 10, 0 en contra, 7 abstenciones.

- Persona de especial relevancia nº1: 10 a favor, 0 en contra, 7 abstenciones.

- Persona de especial relevancia nº2: 10 a favor, 0 en contra, 7 abstenciones.

- Persona de especial relevancia nº3: 13 a favor, 0 en contra, 4 abstenciones.

Por tanto, los 5 aspirantes pasan a formar parte del Consejo. Con 3 de los nuevos representantes se realiza una nueva ronda de presentaciones.

**4.- Propuesta de calendario de Sesiones Ordinarias del Consejo para 2016 y metodología.**

El presidente propone realizar las reuniones en marzo, junio y noviembre, siendo las Comisiones Permanentes 15 días antes.

El representante de EH Bildu plantea la conveniencia de hacer una reunión a tiempo de hacer propuestas a los presupuestos, por lo que noviembre puede ser tarde.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6279n IV 2004-03

Hala, bilera bat irailaren bukaera aldera edo urriaren hasiera aldera egitea proposatu du lehendakariak, eta gero, hala irudituz gero, beste bat urtea bukatu aurretik egin daitekeela. Inork ere ez du ezeren eragozpenik eta onartu egin dute proposamena.

Metodologiaren gainean, idazkariak proposatu du Kontseiluaren araudiak jartzen duena aintzakotzat hartu eta, jarduera solte batzuk proposatu beharrean, helburu orokor batzuk erabakitzea, ekintza zehatz batzuetan mamituko liratekeenak gero.

1. Herritar norbanakoak kexu dela adierazi du, aurreko bilera batzuetan egindako proposamenak (kale eta plaza batzuen izenak aldatzea, esate baterako) ekarri ez direlako. LABeko ordezkariak, esan du ondo iruditzen zaiola helburu estrategiko batzuk jartzea, baina lehen eginda diren proposamenak ere ez direla ahaztu behar. Era berean, ‘etxeko lanak’ eginda ekartzeko eskatu du, eta martxoko bilerarako helburuak jartzeko orain.

Lehendakariak adierazi du badirela 9 proposamen lehen egindakoak, eta kide guztiei bidaltzea proposatu du haiek. Era berean, epe bat jartzea proposatu du, proposamen berriak jasotzeko, 9 horiek aurreko Kontseiluarenak direlako —eta kide gutxiago zituela hark— eta dituzten proposamenak egiteko aukera eman behar zaielako kide berriei.

Giza Eskubideetako zinegotziak gogorarazi du, ondo lan egingo bada —eraginkortasunez—, ekintza puntualak ez baino, 2 edo 3 helburu jarri behar direla urterako, eta haiek betetzen saiatu, hartarako egin behar diren ekintzak eginda. Era berean, uste ustelik izan ez dadin, esan du ez ahazteko aholku batzordea denik hau, proposatu eta aholkuak eman egiten duena, eta egiten dituen proposamenak ez direla lotesleak.

1. Herritar norbanakoak, Donostiako Udala Argentinako kereilan agertzea proposatzen du. Era berean, 3. ospe bereziko pertsonak, proposatutako ekintzak ordenatu eta helburu zabalago batzuen barruan sartu behar direla esaten du. “Egia, justizia eta kalteen ordaina” izan daitezke. Interesgarria dela, orobat, beste euskal erakunde batzuk gai honen inguruan zer egiten ari diren jakitea ere komentatzen du.

El presidente, entonces, propone realizar la sesión a finales de septiembre o principios de octubre, y luego, en caso de que se estime oportuno, se puede realizar otra sesión antes de final de año. Nadie tiene inconveniente, por lo que se acepta la propuesta.

Respecto a la metodología, la secretaria propone que, siguiendo lo que marca el reglamento del Consejo, más que propuestas de actividades sueltas, se acuerden unos objetivos generales, y luego ya se vayan concretando acciones.

El representante ciudadano nº 1 expresa su queja porque no se han traído las propuestas realizadas en reuniones anteriores, tales como cambios de nombre a calles o plazas. El representante de LAB afirma que está bien lo de marcar objetivos estratégicos, pero que no se olviden las propuestas que ya están hechas. También pide que se traigan los “deberes” hechos de casa, y que para la sesión de marzo ya se fijen los objetivos.

El presidente informa de que, efectivamente, ya hay 9 propuestas, y propone que se envíen a todos los miembros, y se fije un plazo para recibir nuevas, ya que esas 9 son propuestas del Consejo anterior, que tenía menos miembros, y hay que dar espacio a los nuevos para que hagan sus propuestas.

El Concejal delegado de Derechos Humanos recuerda que, para funcionar con efectividad, más que acciones puntuales, conviene marcar 2 o 3 objetivos por año e intentar cumplirlos, mediante las acciones que sean necesarias. Recuerda también, a fin de no crear falsas expectativas, que éste es un Consejo Asesor, que por tanto propone y asesora, sus propuestas no son necesariamente vinculantes.

El representante ciudadano nº1 propone que el Ayuntamiento se persone en la querella argentina. La persona de especial relevancia nº3, ve la necesidad de ordenar las acciones propuestas y enmarcarlas en objetivos más amplios, pudiendo ser simplemente “verdad, justicia y reparación”. También comenta que es interesante conocer qué están haciendo las otras instituciones vascas al respecto.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6279n IV 2004-03

Lehendakariordeak planteatzen du ea Batzorde Iraunkorrak ezin dituen proposamenak iragazi, baina lehendakariak erantzun du proposamen guztiak ailegatu behar direla osoko bilerara, eta otsailaren 26a izatea proposatu du proposamen berriak egiteko azkeneko eguna, Kontseiluak hurrena izango duen bileran (martxoaren erdi aldean) aztertuko dituenena. Hamabost egun lehenago izango litzateke Batzorde Iraunkorra.

Horrezaz gainera, LABek eskaturik, Kontseiluko kide guztien izenak eta helbide elektronikoak bidaliko ditu idazkariak, elkarren artean komunikatzeko bidea izan dadin.

**5.- Eskariak eta galderak.**

EH Bilduk adierazi du haien taldeak proposatutako aldaketa bat egitea onartu duela Udalbatzak: alderdi politikoek udal Kontseiluetan izan beharreko ordezkariak ez izatea, nahitaez, zinegotziak, baizik eta alderdiko beste pertsona batzuk ere izateko modua izatea, dena delako gaiaren inguruan prestakuntza eta eskarmentua dutenak.

Hala, Miguel Aranburu Historialarien elkarteko ordezkariak, eztabaida saio txiki bat irekitzen du ea horrek hautetsien ordezkaritzari indarra kentzen ote dion edo, EH Bilduk dioen bezala horizontaltasunari eta bizitza publikoan parte hartzeari mesede egiten dion, alegia. Lantxabeko ordezkariaren iritziz logikoa da, hain zuzen ere, bere elkartetik gehiago dakien pertsona etortzen baita Kontseilura. Berdin diote PSE eta Irabaziren ordezkariek. Horrezaz gainera, Giza Eskubideetako zinegotziak aipatu du, horrela zinegotzi gutxi duten alderdi politikoei errazten zaiela Kontseilu guztietara joan ahal izateak, gaineratuz, baten bati bidegabea irudituko zaiola alderdi politikoek Udalean ordezkaritza izateagatik bestela ez izatea ordezkaritza izateko modurik, eta ez Kontseiluaren aztergaiak hartzen duen denboran zapalkuntzaren biktima izan ziren organizazioak izateagatik.

Hala, beste aztergairik ez denez, 19:30ean bukatutzat jo dute bilera.

El Vicepresidente plantea si la Comisión Permanente no puede hacer de filtro con las propuestas, pero el Presidente responde que al plenario deberían llegar todas, y propone que se fije un plazo hasta el 26 de febrero para enviar propuestas nuevas, que se debatirán en el próximo Consejo, que será a mediados de marzo. Y 15 días antes, la Comisión Permanente.

Además, a petición de LAB, la secretaría enviará los nombres y e-mails de todos los miembros del Consejo, a fin de que se puedan comunicar entre sí.

**5.- Ruegos y preguntas**

EH Bildu informa de que se ha aprobado en Pleno del Ayuntamiento un cambio propuesto por su grupo político, a fin de que las personas representantes de los partidos políticos en los Consejos Municipales no tengan necesariamente que ser concejalas/es, sino que puedan ser otras personas del partido con formación y experiencia en el tema.

El representante de Miguel Aranburu Historialarien elkartea abre un pequeño debate sobre si eso desvirtúa la representatividad de los cargos electos o si, por el contrario, como defiende EH Bildu, favorece la horizontalidad y la participación en la vida pública. El representante de Lantxabe afirma que le parece lógica la propuesta ya que de su asociación viene quién más sabe del tema. Lo mismo opinan los representantes de PSE e Irabazi. El Concejal delegado de Derechos Humanos añade que así también se facilita la participación para los partidos que tienen pocos concejales y muchas Comisiones que atender. Menciona, además, que podría parecer injusto que los partidos políticos sólo puedan estar representados por el hecho de estar en el Ayuntamiento, y no como organizaciones que fueron víctimas de la represión en el periodo que abarca el Consejo.

No habiendo más temas que tratar, se da por finalizada la reunión a las 19:30 h.